

JABIER MUGURUZA

LEIHO BAT ZABALIK

VICTORIA EUGENIA CLUB

Maiatza 31 Mayo

20:00

15 €

Euskara

Jabier Muguruzaren disko berriak, 15.a kantautore moduan, aldaketa nabarmena dakar instrumentazio aldetik: urte luzeetan lagundu dion oinarri akustikoa alde batera utzi, eta gitarra elektrikoak (Ander Mujika) eta elementu elektronikoak ("Carasueño") ditu ardatz oraingo honetan; modu horretara, soinu-paisaia berri batera eramaten du obra.

Hala ere, eta aldaketak aldaketa, Jabierren jarraitzaileak berehala ezagutuko ditu bere ohiko estiloa eta nortasuna: tempo lasaiak, hitz intimistak belarrira xuxurlatuak, dotorezia melodietan, emozioen alkimia...

Hitzak ohizko kolaboratzaileenak dira oraingoan ere (Iñaki Irazu, Gerardo Markuleta, Lourdes Oñederra, Jose Luis Padron, Harkaitz Cano), gehi, aspaldiko partez, Iban Zaldúa eta Angel Erro, eta, aurreneko aldiz, Iñigo Astiz.

Bestalde, esan beharra dago musika guztiak Jabierrenak direla.

Irungo kantaria behin eta berriz errepikatzen ari den gisan, kulturarako garai ilun hauetan, ilusioa eta gogoari eusteko apustu kementsua da orain aurkezten duen *Leiho bat zabalik* hau.

Azkenik, aipatu beharra dago Ander Mujika eta Jabier Muguruza arituko direla zuzenean disko berria aurkezten.

El nuevo disco de Jabier Muguruza, el que hace el número 15 como cantautor, trae cambios profundos en lo que a la instrumentación se refiere: deja a un lado la base acústica que le ha acompañado durante largos años, para acompañarse en esta ocasión de las guitarras eléctricas de Ander Mujika y los ambientes electrónicos de "Carasueño". De esta forma, transporta la obra a un nuevo paisaje sonoro.

De todos modos, más allá de los cambios comentados, el seguidor de Jabier inmediatamente identificará su habitual estilo y personalidad: los tempos tranquilos, las letras intimistas susurradas al oído, la elegancia en las melodías, esa alquimia de las emociones...

Las letras son de sus colaboradores de todos estos años (Iñaki Irazu, Gerardo Markuleta, Lourdes Oñederra, Jose Luis Padron, Harkaitz Cano), a los que se añaden, tras mucho tiempo, Iban Zaldúa y Angel Erro, sin olvidarnos de Iñigo Astiz, que está por primera vez.

Cabe destacar que todas las composiciones son obra de Jabier.

Tal y como el cantante de Irún viene repitiendo, este *Leiho bat zabalik* que ahora presenta, supone una apuesta decidida por mantener la ilusión y las ganas en este tiempo tan amargo para la cultura.

Finalmente, se debe añadir que Ander Mujika y Jabier Muguruza defenderán en directo la nueva obra.